

**42**  
ARABAKO ANTZINAKO  
MUSIKA ASTEA  
SEMANA DE MÚSICA  
ANTIGUA DE ÁLAVA



## Arabako Antzinako Musika Asteko bi kontzertu emango dira Katedralean

Beste behin ere, Arabako Antzinako Musika Asteak (AMA) Santa Maria Katedralean eskainiko ditu Lurraldean irailan egingo diren hainbat kontzertu. Espainian tradizio handiena eta nazioartean proiektio handiena duen antzinako musikaren jaialdietako bat da.

Zehazki, 42. edizio honetan, bi musika-hitzordu izango dira Santa Marian. Lehena irailaren 19an, 20:30ean, Tiento Nuovorekin, eta bigarrena irailaren 20an, baita ere 20:30ean, 'Amets proiektua' lanarekin. Kontzertuak doakoak dira, eta horietara joateko gonbidapena eskuratu behar da [Semana de Música Antigua de Álava](#) web gunean.

Espainian talde barroko ospetsuenetakoa da Tiento Nuovo, eta Charles Avison - Concerti Grossi aurkeztuko du. Ignacio Prego klabezinista ezagunaren gidaritzapean, Concerti Grossi de Avison grabazioak Diapason d'Or saria jaso du, eta Scherzo aldizkariaren Disko Bikaina bezala izendatu dute; horrez gain, Europako prentsa espezializatuaren kritikarik onenak jaso ditu.

Eta Jaialdiko 'Gure musikari gazteak' zikloaren barruan, 'Amets Proiektu' taldearen emanaldia kokatzen da. Hain zuzen ere, Musikeneko –Euskal Herriko Goi Mailako Musika Zentroa– 14 ikaslek osatzen dute. Tutto J.S. Bach aurkeztuko dute, hari-orkestrarako programa barrokoa, Johann Sebastian Bachen obreakin.

## Magia nagusi izango da beste behin elizpean



Nazioarteko Magia Jaialdia Magialdiaren 36. edizioak nazioarteko 30 artista baino gehiago ekarriko ditu Gasteizera. Horien artean, Gonzalo Albiñanek Nocturna ikuskizuna aurkeztuko du Katedraleko elizpean, irailaren 16tik 18ra bitartean. Gonbidapenak 19:00etatik aurrera emango dira elizpean. Informazio gehiago nahi izanez gero, sartu [magialdia.com](#) web gunean.



## Trueba & Trueba konpainiak **Bide ausarta** aurkeztuko du Santa Maria plazan

Kantabriako Trueba & Trueba konpainia Santa Maria plazan izango da irailaren 14an, proposamen original bat aurkezteko: *Bide ausarta*.

Ikuskizunean, taldeko kide berberak idatzi, zuzendu eta interpretatzen dituzte 2 minutuko antzezlan txikiak, laugarren hormarik gabe eta erlojuaren kontra. 60 minutu besterik ez dituzte 30 antzezlanak osatzeko, bertaratutako ikusleek emandako ordenan eta antzerki Neofuturistaren lau premisak betez; hau da, beti gara garenak, gauden lekuan gaude, egiten ari garena benetan egiten dugu eta denbora orain da. Konpainia inguruan dugun munduan oinarritzen da, eta ostikoka agertokira eramaten du. Modu horretan, denok ikus dezakegu horren edertasuna, eta haren kontraesan amaigabeei aurre egin diezaikegu.

Emanaldia Ipar Eszena Bidea (IEB) truke eszenikoaren programako 'Konstelazioak' zikloan sartzen da. Aurten 6. edizioa izango du, eta urrira bitarte hamabost bat ikuskizun eskainiko dira Euskadin, Galizian, Asturiasen, Kantabrian eta Nafarroan zehar banatutako 60 egoitza baino gehiagotan.

**Datuak:** *Bide ausarta*, helduentzat. Irailaren 14an, 19:00etan, Santa Maria plazan. Eurria egiten badu, elizpean izango da. Sarrera librea da edukiera bete arte.



## Aurtengo udan 23.200 bisita baino gehiago izan ditugu

**Balantzeak gora egin du. Horrela laburbil daiteke uztailen eta abuztuan Santa Maria Katedrala ezagutzera etorritako bisitarien kopurua, iazko zifrak gainditu baitituzte.**

Uda oraindik ofizialki amaitu ez bada ere, "oporraldi handieneko" bi hilabeteetan 23.228 bisitari hurbildu dira Katedralera; hau da, 2023ko uztailen eta abuztuan baino %3,5 gehiago (orduan 22.542 pertsona jaso genituen).

Kopuru horiek jatorriaren arabera banakatzen baditugu, estatu-mailan, Gasteizko Santa Maria Katedralera bisita gidatu gehien egin dituztenak Madrilgo, Valentziako, Kataluniako eta Andaluziako autonomia-erkidegoetako bizilagunak izan dira. Nazioartera begira, berriz, italiarrak, frantziarrak, alemaniarrek eta estatubatuarrek –hurrenkera horretan– izan dira uda honetan gehien bisitatu gaituztenak. Nazioarteko bisitariak uztailen eta abuztuan jasotako bisita gutzientz %20a osatzen dute.

Zalantzarik gabe, "Obretan eta irekita" ekimenaren erakargarritasunak, Katedrala eta dorrea bisitatzeak, **Santa Mariak dituen altxorrek erakusteak eta 360 teknologiarekin egindako ibilbideen esperientzia murgiltzaileak medio, urtero bisitari gehiago etortzen dira.**

## Uda "ezin hobea"

'Kontzertuan eta irekita' eta Nazioarteko Musika Jaialdiaren barruko musika-jarduerek nahiz 'Zinema elizpean' zikloko filmek jende ugari erakarri dute Gasteizko Santa Maria Katedralera.

Katedralaren jarduera-agendan, musika- eta zinema-ekitaldi garrantzitsuak proposatu dira uztailen eta abuztuan, eta herritarrek



oso ondo erantzun dute ekitaldi horien aurrean. Elizpea bete egin da Barbie, CampeoneX eta El carné filmen proiektioetan, eta Santa Mariako elizpean ehunka musikazale bildu dira Fanny Desk, Fetén Fetén, Antton Aranburu, Rebeca Jiménez,

Benjamín Prado eta Naiara de la Puenteren emanaldietan. Erabateko arrakasta izan denez, garbi dago udan Santa Marian egiten diren jarduerak herritarren eta bisitarien arreta erakarri dutela aurrean ere.

JARRAI GAITZAKEZU: